

UDALAK ERATZEKO ARAUAK

I. ERAKETAREN AURREKO JARDUKETAK

a) **Egiaztagutunak aurkeztea.**- Hautatutako zinegotzi guztiek aurkeztu behar dituzte beren egiaztagutunak udalbatzaren idazkaritza nagusian. Orobat, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, eratze bilkura egin baino lehen, hautetsiak nor diren ziurtatzen duten ziurtagiriak igorriko ditu udaletara.

b) **Hautetsien interesen aitorpena.**- Toki entitateetako kide guztiek nahitaezko dute aitortzea balizko bateraezintasunaren kasuan dauden eta diru-sarrerarik ematen edo ematen ahal dien edozein jarduera egiten duten. Orobat, beren ondare-ondasunak aitortu beharko dituzte. Aitorpen horrek kasuan kasuko osoko bilkuretan onetsitako ereduari jarraituko die. Nolanahi ere, eredu horiek onetsi gabe badaude, NUKFren web-orrian aitorpen-ereduak daude eskuragarri.

Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 75.7 artikuluan xedatutakoarekin bat, toki udalbatzetako kideek, mehatxatuzat jotzen badituzte beren segurtasuna edo ondasunak, edo senitartekoenak, zilegi dute autonomia erkidegoko organo eskudunaren aurrean egitea aitorpenok. Aitorpen horiek interesen erregistro berezian inskribatuko dira, zeina propio sortu baita horretarako. Kasu horretan, toki udalbatzetako kideek aitorpena egin izanaren ziurtagiria aurkeztuko diote udalbatzako idazkariari.

c) **Karguak uzten dituen udalbatzaren azken bilkuraren akta onestea.**- Hauteskunderi buruzko legediak udalak eratzeko bilkura egiteko ezartzen dituen data baino hiru egun lehenago onetsi behar da udalbatzaren azken bilkuraren akta. Kontuan izanik ekainaren 17an eratuko direla batzar berriak, ekainaren 14an egin beharko da amaieraren osoko bilkura eta gobernu batzordea, kasua bada, helburu bakarra izanik aurreko bilkuraren akta onestea, Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36. artikuluekin bat.

d) **Kontaketa berezia eta ondarearen inbentarioa prestatzea.**- Idazkariak eta, kasua bada, kontu-hartzaileak, kontaketa berezirako agiriak prestatu behar dituzte, udalbatza berria eratzen den egunean kontaketa eginen baita eta egiaztatuko baita eguneraturik daudela entitatearen eskudirua eta baloreak, entitatearen kutxan edo bankuetan egon.

Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamentuaren 88.1 artikulua xedatzen duen bezala prestatu behar du idazkariak udalaren eta haren erakunde autonomoen ondarearen gaineko dokumentazioa, gero egiaztatua izateko.

e) **Eratze bilkuraren deialdia.**- Jarduneko alkateak egin behar du eratze bilkuraren deialdia, gutxienez bi egun baliodun lehenago, eta, ahal dela, zirkular honek c) atalean aipatzen duen amaiera bilkuraren ondoren. Deialdian aipatu beharko da Herriko Etxearen bilkuren aretoan eginen dela bilkura, eta zehaztuko da zer orduetan izanen den.

Kargua uzten duen alkatea kanpoan edo eri badago, edo ez badu nahi, edo deialdia egitea galarazten duen beste edozein arrazoiengatik, hautatutako zinegotziek erabakiko dute, bere kasa edo zerrendaburuen bidez, ados jarritakoan, zer orduetan hasiko den eratze bilkura.

Aurreko prozedurak erabili ezean, udalbatzako idazkariak zehaztuko du, hautatutako zerrendaburuekin kontsulta egin ondoren, zer orduetan eginen den udalbatza eratzeko bilkura.

Bukatzeko, idazkari bat bi udaletan edo entitate gehiagotan aritzen denean batera, harmonizatu beharko dira bilkuraren ordutegiak, idazkariak bere udalen bilkurerata joateko modua izan dezan. Horretarako, ordutegia behar bezala finkatuko da, hautatutako zerrendaburuekin hitzartu ondoren.

II.-UDALA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTATZEA

Hauteskundeei buruzko Legeari jarraituz, ekainaren 17an eginen da udalbatza berriak eratzeko bilkura, non ez den aurkeztu hauteskundeei auzi-errekurtsioa hautetsien aldarrikapenen kontra. Hala bada, uztailaren 7an izanen da bilkura. Eratze bilkuran, udal berria eratzeaz gain, alkatea hautatu ere hautatuko da. Kasu guztietan, udalbatza eraturik gelditzeko, hautatutako zinegotzien gehiengo osoak egon behar du presente. Gehiengo hori lortzen ez bada, bi egun geroago eginen da beste bilkura bat (ekainaren 19an, alegia). Orduan, udalbatza eraturik geldituko da edozein dela ere joaten diren zinegotzien kopurua. Segituan eratze bilkurari buruzko zenbait punturi helduko zaie:

a) **Adinaren Mahaia eratzea**

Lehendabizi, Adinaren Mahaia eratu behar da. Ekitaldian dauden adin handieneko eta adin txikieneko hautatutako zinegotziek osatuko dute mahai hori. Adin handieneko zinegotzia izanen da mahai burua, baita udalbatzako ere, harik eta alkatea karguaz jabetzen den arte. Idazkari lanetan udalbatzako idazkaria arituko da.

Mahaiaren eginkizun nagusiak dira egiaztagutunak eta ziurtagiriak egiaztatzea, hautetsiei zina edo hitzmatea hartzea eta alkatea hautatzeko ekitaldian buru izatea.

Bestalde, beharrezkoa da Konstituzioari men egiteko zin egitea edo hitzmatea zinegotziaren izaera eskuratzeko guztiz. Hau da, zin egin edo hitzeman ezean, hautetsia ezin izanen da karguaz jabetu eta ezin izanen du parte hartu alkatea hautatzeko ekitaldian. Hitzematea edo zin egitea atzeratzen bada, galarazita dago zinegotziaren karguaz jabetzea, hau da, eraginkortasunez betetzea, baina horrek ez du esan nahi izaera hori galtzen dela.

Eratze bilkurara joaten ez diren zinegotziek osoko bilkuran eginen dute zin edo emanen dute hitz, joaten diren lehendabiziko bilkuran, eta orduan jabetuko dira karguaz.

b) Alkatea hautatzea

Eratze bilkura berean eginen da. Zinegotzi guztiak izan daitezke alkategaiak. Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, alkate hautatuko dute. Inork ez badu gehiengo hori lortzen, hauteskondeetan boto gehien lortu dituen izendatuko da alkate, eta horrek uko egiten badu, boto kopuruan hurrengoa dena.

Behin alkatea aukeratuta, hark karguaz jabetu eta hitzeman edo zin egin behar du Osoko Bilkuraren aurrean. Alkate izendatzen den zinegotzia ez badago presente udalbatza eratzeko bilkuran, eskatuko zaio 48 orduko epean jabetu dadila karguaz Osoko Bilkuraren aurrean, ohartarazita ezen, egin ezean eta horren arrazoirik azaldu ezean, alkatetza hutsik geldituko dela (Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 40. artikulua). Zinegotzi gisa egin zinak edo hitzmateak ez du ordeztuko izendatutako alkateak egin beharrekoa.

Alkateak uko egin diezaioke karguari. Halakoetan, ukoa idatzizkoa izanen da, Udalbatzako Osoko Bilkurari zuzendua. Kargua betetzeko, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 198. artikulua bete behar da. Uko hori ez da zinegotzi kargura luzatuko, eta izaera horri eustiko zaio, non ez den berariaz adierazten kargu horri ere uko egiten zaiola.

c) Kontaketa berezia eta ondasunen inbentarioa egiaztatzea

Bukatzeko, gogora ekarri behar da kontaketa berezia eginen dela eratzeko bilkuran eta udalbatzaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa egiaztatuko dela (horretan honako hauek parte har dezakete: hautatutako alkateak, kargua uzten duen alkateak, eta kontuhartzaileak eta diruzainak, edo, bestela, udalbatzako idazkariak). Kasuan kasuko aktan jasoko da hori.

III.- BILKURA BEREZIAREN DEIALDIA, ERATZE BILKURA EGIN ETA HURRENGO HOGEITA HAMAR EGUNEKO EPEAN

Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 38. artikularekin bat, eratze bilkura egin eta hogeita hamar egun balioduneko epean, alkateak osoko bilkura berezi bat edo gehiago deitu behar ditu, puntu hauek ebazteko:

- Osoko bilkura arrunten maiztasuna. Gutxienez hiru hilabetean behin egin behar dira.
- Informazio batzordeen sorrera eta osaera, halakorik duten udalbatzetan.
- Udalbatzaren ordezkariak izendatzea Osoko Bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetarako.
- Jakinaraztea zer ebazten duen alkateak izendapen hauen inguruan: alkateordeak, Gobernu Batzordeko kideak, halakorik badago, informazio batzordeetako buruak eta alkatetzak bidezkotzat jotzen dituen eskuordetzak.
- Udal taldeak eratu direla jakinaraztea.